




LEKORNE

# Urtsua (Lekorne)



Distantzia <b>13,1 km</b>	Desnibela <b>510 m</b>	Iraupena <b>4h15</b>	Tipologia <b>Itzulia</b>	Zedarrak <b>PR ibilbide osoan</b>
------------------------------	---------------------------	-------------------------	-----------------------------	--------------------------------------

Kanbotik, Donibane Garaziko errepidea segitu (D932 eta gero D918). Luhusoko biribilgunean, ezker hartu herri barne aldera. Luhusoko elizako bidegurutzean, zuzen segitu Makea eta Lekorne aldera. Gero, Makeako Herriko plaza zeharkatu (saltegiak) eta Lekorneko Lekorne auzoraino D252 errepidean segitu 3 km-tan. Aparkalekua eskuinaldean seinaltua da, Postetxeko plazan.

GPS datuak : UTM : 637953 - 4799964 Lat/Long : 43.33985/-1.29810

libaldi eder honek Urtsua mendiko itzuli osoa egitea proposatzen dizu, "iturrien mendia", Lekorneko Lekorne auzotik abiatuz. Tokiko ondarearen elementu batzuetaz gain, Lapurdiko zati handi batara etengabe berriztatuak diren ikuspegiak ere aurkituko dituzu.

## 1. ZATIA > Lekorneko gainaldeetara

UTM : 637953 - 4799964

Lekorneko pilota plaza zeharkatu (166 m) eta Etchebarne hotela pasatu ondotik, ezkerredera joan; ondotik, zure parean, etxe berrietara daraman bidea segitu. Etxe horietara heldu eta, ezker hartu hesi baten bazterretik doan bidexka gordean. Gero, latsagia gaineko bidexka hezea igo. Gorago, errepidearen bihurtunera darama, eskuin aldera segitzekoa. Bide batek hartzen du segida Etxebarne etxearen ondotik. Gurutze itxurako bidegurutzera heldu eta (291 m), eskuin segitu lurrezko bidean. Gorago, eskuineko bideari kasurik ez egin, eta urrunago ezkerrekoari, eta ur-bilketa batera iritsi: hurrengo Y gunean, eskuinera jaisten den bidea hautatu. Beherean (T itxurako bidegurutzera), errepideraino doan ezkerreko bidea segitu.

## 2. ZATIA > Napoleonen bidean


UTM : 637353 - 4801071

D152 errepideko bihurtunetik hurbil-hurbil pasatu (274 m) eta ezkerreko lehen bidea hartu, haritz ohargarrien azpian. Oihantetik ateratzerakoan, bihurtunetaren ondotik, lehen bidea moztu eta bigarrena segitu eskuinaldera. Errepide baten azken zatiraino heltzen da: ezkerredera segitu bide onean, kanadar pasabidea eta gero (Betirigaztenean etxaldea). Napoleonen bidea deitzen zaion bide zabal honetan segi ibiltzen. Puntu gora batean kokatutako bidegurutzean (305 m), borda batetik hurbil, pareko bide zabalean egon. Zuhaitzen azpitik aitzinera joan, zubi bat zeharkatu, eta bideak bidegurutze bateraino eramaten zaitu.

## 3. ZATIA > Urtsubehereko ikuspegi zabaleko bidetik Iramalda lepora

UTM : 635583 - 4801816

Kanadar pasabidea zeharkatu gabe (296 m), bidean ezker hartu, eta 100 m urrunago eskuinaldean egon. Pitxar etxalde aitzineko bihurtunetik zeharkatu, mundruna utzi eta bide harriztatu zabalean zuzen segitu. Itsasbazterrerako ikuspegi panoramikoa eskaintzen duen bidetik zuzen segitu. Bideak ibarxka zabal bat zeharkatzen du (iturria) eta kasko borobildu batera buruz igo. Hemen, Urtsubehereko borda (438 m) Y itxurako bidegurutze baten erdian kokatua da: eskuinerantz segitu, doi-doi jaisten



den bidean. Ibarxka baten ziloa eta gero (iturria), hurrengo Y bidegurutzean, ezkerredera igotzen den bidean egon. Gainaldean, hesi baten bazterretik doa. Ondotik, borda eder batera jaisten da, eta azkenean, lepo batetik hurbil den bidegurutze batera.

## 4. ZATIA > Iramalda lepotik Mokorretara

UTM : 634199 - 4799731

Iramalda lepotik hurbil den lehen bidegurutzean (397 m), bordaren kontra den ezkerreko bidea hartu. Ibarxka bat iragan, mundrunezko patarra igo eta, bi borden ondotik, eskuinera jaitsi, belarrean, eraikinen bazterretik. Bidearen segidan, ibarxka oihantsutik iragan eta iratzediaren ziloan kokatutako bidegurutzera heldu: arrunt ezkerredera igotzen den bidea hartu. Bihurgune zorrotz baten ondotik, bidea Mokorreta lepora heltzen da (borda).

## 5. ZATIA > Mokorretatik Makeara (Uharazkia)

UTM : 635221 - 4799701

Bide harriztatuaren bihurtun batek zeharkatzen du Mokorreta lepoa (435 m): zabalean eskuinaldean segitu. Hurrengo ibarxka oihantsuan, bide lauan egon, eta urrunago, bidegurutzera iraganen mundrunezko zatian (399 m): errepidea eskuinaldean utzi eta pareko bidean segitu. Mundrunezko bide batek hartzen du segida eta biltegi handi batera eramaten zaitu eta, 100 m beherago, errepidean elkargunera.

## 6. ZATIA > Makeatik (Uharazkia) Lekornera

UTM : 636281 - 4799732

Errepidean elkargunean (330 m), mundrunezko bidea igotzeko, ezker hartu. Etxaldearen eta laborantza-biltegiaren bazterretik ibili eta, 50 m gorago, eskuinera joan, zabalean beste bi biltegiaren artean iragateko. Bigarrenaren ondotik, 20 m ezker igo betoizko patarrean, eta gero, eskuineko bidea hautatu. Laster jaisten da hesien artean, eta gero, zuhaitziak eta pentzeak zeharkatzen ditu. Lekorne ikusmenean den gurutze itxurako bidegurutzera itzuli eta (291 m), herrira jaisteak baizik ez zaizu gelditzen eskuinaldean, etortzean hartutako bide beretik (Etxebarne auzoa eta latsagiako bidexka).

## INTERESGUNEAK

### ❖ Ehunka urteko haritzak (2,4 km)

Bidearen bi aldeetan, haien garaierarengatik eta 3 metroraino hei daitekeen zirkunferentziarengatik ohargarriak diren haritzak ikus ditzakezu.  
UTM : 637271 - 4801139

### ❖ Napoleonen bidea (3,2 km)

Napoleonen bidea, Gailurretako bidea ere deitua, Baiona eta Donibane Garazi lotzen zituen komunikazio bide estrategiko bat izan zen, besteak beste Napoleonen ostek hartu zutena Espainiako independentzia gerlaren garaian (1808-1814).  
UTM : 636553 - 4801263

### ❖ Urtsua mendiko iturriak (6,4 km)

Mendiko isurialde guzietan iturri anitz baitira, Urtsua "iturrien mendia" dela erratan ohi da, izenak berak "ur" hitza duela erro.  
UTM : 634745 - 4801289

### ❖ Mokorreta gunea (10,2 km)

Mokorreta, ezproia adierazten duen euskal toponimo bat da, mokor erroaz osatua, tumulu baten presentziari dagokiona. Zure eskuinean den mendixka belartsuan (lursail pribatua) gotorleku protohistoriko bat bazen, behiala ibarren arteko zirkulazio bideak kontrolatzeko baliatua.  
UTM : 635221 - 4799701

## ARRETAZ IBILTZEKO LEKUAK

- Zaunkaka eta atseginak ez diren txakurrak Mehaka etxaldea zeharkatzerakoan (Makea)  
UTM : 636435 - 4799980

- Artzain eremua: hesiak hets, abereak ez beldurtu, xakurra loturik atxik, abere taldeetarik aski urrun egon

- Mendiko suak izateko arriskua bada (artzain-suak), urritik apirilera

## EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

- Lekorne, jatetxeak herriko plazan  
UTM : 637922 - 4800007

- Kanpoan bazkaltzeko mahaiak D152 errepide bazterrean  
UTM : 637356 - 4801086



# Ibilbideen erabilbidea

## ZAILTASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoan.

Gisa horretan, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioaren gomendioak jarraitzen ditugu.

**Oso erraza:** 2 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatuetan.

**Erraza:** 3 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

**Ertaina:** 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibiltzeko ohitura duten ibiltarientzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

**Zaila:** 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolarientzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

## MENDI BIZIKLETAZKO IBILALDIAK:

**Oso erraza:** bide zabala eta gurpiletako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

**Erraza:** gurpiletako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

**Ertaina:** bidexka teknikoak, 800 m baino guttiagoko desnibela.

**Zaila:** bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

## DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, goera guziren gehiketa da.

## IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da. Kontuan hartzen ditu ibilbi-dearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

## PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoaren, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: [www.ffrandonnee.fr](http://www.ffrandonnee.fr))

## GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetan ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbi-dearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentziatzeko formatua: WGS 84 - UTM 30T

## ZEDARRIZTATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorri jarraitu beharko zaizkie. Ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

	PR TOKIKO BIDEXKA	GRP® TOKIKO IBILBIDE LUZEA	GR® IBILBIDE LUZEA	VTT BIDEXKA
Norabide ona	—	—	—	▲
Itzul ezker	└	└	└	◀
Itzul eskuin	┘	┘	┘	▶
Norabide okerra	✗	✗	✗	✗

# Jokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziarazten duten emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

## Abiatu aitzin, presta zaitez

- Ez zaitezela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitezela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emaiozu (zenbait lekutan telefono sarerik ez da eta ezin atzema bilaka zaitezke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitezela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informa zaitez, erabat alda daiteke. Jakinean izan zaitez garai hauek: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

## Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota onddorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinaletika errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarriztuetan.

## Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitez emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitezela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoan.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitez eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoarik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren guneeetan bakarrik.

## Zure hondakinaren kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereiz itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezakete!

## ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Météo France:  
08 99 71 02 64 edo 32 50  
edo [www.meteofrance.fr](http://www.meteofrance.fr)

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 - SUHILTZAILEAK 18



## ZURE IRITZIA GURE BIDEXKEI BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharrak gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeko aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu edozein arazo edo ohar baliagarri jakinaraztera: [sentinelles.sportdenature.gouv.fr](mailto:sentinelles.sportdenature.gouv.fr)

## HELBIDE BALIAGARRIAK

Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa: Turismoko harrera bulegoak:

- AHURTI : merkatuko plaza  
+33(0)5 59 56 24 65
- BIDAXUNE : pilota plaza  
+33(0)5 59 56 03 49
- HAZPARNE : Donibane plaza  
+33(0)5 59 29 62 02
- BASTIDA : Pilota plaza  
+33(0)5 59 56 03 49

## PROFESIONALAK

Brebetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuetaz gozatzeko, harremanetan jar zaitez Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrerako bulegoarekin.